## MERKATUAREN SEGMENTAZIOA ETA MERKATU XEDEA :

Gure erreferentzia merkatua, Hondarribiako jatetxeen merkatua da. Erreferentziazko merkatu zabal hau sementazio irizpideekin segmentatuko dugu.

- **Erreferentzia merkatua:** Hondarribiako jatetxeen merkatua.
- **Segmentazio irizpideak:**

  1- Bezeroen egoera sozioekonomikoa

  2-Janari mota.

| | BERTAKO JANARIA | JANARI INTERNAZIONALA |
|---|---|---|
| **Merkea** | | X |
| **Normala** | | X |
| **Garestia** | | X |

Guk, Hondarribin janari internazionala eskeintzen duen jatetxe bat sortu nahi dugu. Hala ere, oraindik ere, erreferentziazko merkatu hau (Hondarribiako jatetxe internazionalen merkatua) nahiko zabala da. Beraz, merkatu zati hori gehiago segmentatuko dugu. Horretarako maila sozioekonomikoa eta janari motaren segmentazio irizpideak erabiliko ditugu.

- **Erreferentziazko merkatua:** Hondarribiako jatetxe internazionalen merkatua.

- **Segmentazio irizpideak:**

  1- Bezeroen egoera sozioekonomikoa

  2.-Herrialde ezberdinetako sukaldaritza

| | AMERIKARRA | MEXIKARRA | ITALIARRA | KEBAB | ORIENTALA | BESTELAKOAK |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Merkea** | | | | | | |
| **Normala** | | | | | | |
| **Garestia** | | | | | | |

Aurreko taulan ikusi daitekeen bezala, jatetxeen merkatuan segmentu ezberdinak daude. Guk horietako bat/batzuk aukeratu behar ditugu gure merkatu xedea zein izango den erabakitzeko. Horretarako, jarraian, gure merkatua ikertuko dugu ondorengoak aztertuz:

- **Segmentu bakoitzaren tamaina (bezero kopurua):**

| | AMERIKARRA | MEXIKARRA | ITALIARRA | KEBAB | ORIENTALA | BESTELAKOAK |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Merkea** | Handia | Txikia | Handia | Ertana | Ertaina | Ertaina |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Normala** | Handia | Txikia | Handia | Handia | Ertaina | Ertaina |
| **Garestia** | Ertaina | Txikia | Ertaina | Txikia | ertaina | Ertaina |

Taula honetan ikus daitekeen bezala, Hondarribian jatetxe internazionalekiko demada edo eskaria badago. Batez ere, jatetxe amerikarra, italiarra eta kebab-arekiko.

- **Segmentu bakoitzean dauden lehikideak:**

| | **AMERIKARRA** | **MEXIKARRA** | **ITALIARRA** | **KEBAB** | **ORIENTALA** | **BESTELAKOAK** |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Merkea** | Ortzadar | | Peccato | Kebab Hondarribia | | |
| **Normala** | El Rodeo<br>Route 33 | | Il Capo | | | |
| **Garestia** | | | | | | ArrokaBerri<br>Alameda<br>Abarka |

Taula honetan ikus daitekeen bezala, momentu honetan, Hondarribian ez daude janari interneazionla eskaintzen duten jatetxe asko.

- **Segmentu bakoitzaren erakargarritasuna:**

Aurreko bi tauletan, segmentu bakoitzean dauden bezero eta lehiakide kopuruak aztertu ditugu. Jarraian, aurreko bi taulak aztertu ondoren, segmentu bakoitzaren erakargarritasun maila adieraziko dugu. Adibidez, bezero asko eta lehiakide gutxi badaude, negozio handia dago hor eta erakarkarritasun maila handia izango da. Gu segmentu erakargarri horietan sartuko ginen:

| | **AMERIKARRA** | **MEXIKARRA** | **ITALIARRA** | **KEBAB** | **ORIENTALA** | **BESTELAKOAK** |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Merkea** | ertaina | txikia | ertaina | ertaina | ertaina | ertaina |
| **Normala** | ertaina | txikia | ertaina | handia | ertaina | ertaina |
| **Garestia** | ertaina | txikia | ertaina | Txikia | ertaina | ertaina |

Horrenbestez, azken taula honetan ikus daitekeenez, jatetxe internazionalen inguruan negozio maila handia eskaintzen duen segmentu bakarra dago (kebab-prezio normala). Horrez gain, negozio maila ertaina eskaintzen duten segmentu asko daude (ikusi taulan). Gure erabakia, negozio maila handia dagoen segmentu horretan sartzea da, baina janari mota horretako negozio maila ertaina dutenak ere asetuz. Beraz, gure **merkatu xedea** "Kebak jatetxe Prezio Normala"-ren segmentua da. Hala ere, "Kebak jatetxe Prezio merkearen"

segmentuarentzat ere zerbitzua eskainiko dugu. Beraz, gure merkatu xedea bi segmentu horiek osatzen dutenez, erabiliko dugun estrategia Segmentatutako merkatuarena da.